

GURE PROIEKTUA - JAMASAKI

Gure proiektua mahai elektriko bat izango da. Mahaiko erdialdean zulo moduko bat egongo da ordenagailua bertan sartu ahal izateko eta bitartean kargatu ahal izateko. Mahaiaren alde batean USB sarrera izango du, mugikorra eta kaskoak kargatu ahal izateko. Ordenagailuaren zuloaz gain, beste zulo bat egongo da estutxea sartu ahal izateko eta bi zulo horiek tapa bezalako bat izango dute ixterakoan mahai normal bezalako bat gelditzeko eta idazterakoan edo marrazterakoan arazorik ez izateko, ordengagailua edo dena delakoa ez oztopatzeko.

Produktu hau ikastoletako eta unibertsitateetako ikasle, irakasle edo langileei edota lan esparruetara egongo da zuzenduta; izan ere, beraien egunerokoan, klasean, ordu asko egoten dira, eta ordu horietatik gehienak ordenagailuak edo edozein gailu elektronikoa erabiltzen egoten dira. Horregatik, gailu elektronikoa kargatzeko beharra edukitzen dute klasean dauden bitartean, baina ezin dute ordenagailua entxufe batean kargatzen utzi eta lan egiteari utzi. Horregatik, mahai honen helburua ikasleak klasean daudenean gailu elektronikoen bateriaz ez arduratzea eta kargatzen ari diren bitartean lan egiteari ez uztea da, beti erosotasuna aurkituz.

Ikasleek produktu honen berri izan dezaten instagram sare sozialeko kontu bat egingo dugu gure mahaiaren funtzionamendua eta datu interesgarriak jenedeak ezagutu ditzan. Horretaz gain, web gune bat sortuko dugu, instagram sare soziala ez daukan jendeak informazioa lortu ahal izateko. Gainera, bai instagrameko kontuan, baita web gunean ere gure gmail kontua egongo da bezeroek gurekin kontaktatuko nahi balute, arazorik ez izateko.

Gure mahai elektrikoaren produzitzeko, pinuaren egurra eta altzairu herdoilgatzaila beharko ditugu. Egurra mahaiaren goiko zatirako eta altzairua hankak sortzeko, mahaiaren hankak beheko partean goma izango dute, mahaia ez irristatzeko eta mugitzerakoan zaratarik ez egiteko.

Azkenik, TDH gaixotasuna duten ikasle eta langileentzat mahai ezberdin bat diseinatu dugu, pedalak izango dituenak. Horretarako, instituzio publikoarekin adostasun batera heltzen saiatuko ginateke, mahaia erostean gobernutik laguntza ekonomikoa jaso ahal izateko.